

STOP MOTION TXOKOA

AZKEN EKOIZPENA: (sortu beharrekoa)

- DBH1n sartzten diren ikasle berrientzat, StopMotion teknikaren bidez bideotxo bat sortu behar duzue, non azaltzen den institutuan egiten den ikasketa ibilbidea, eraikin bakoitzean zein ikasketa egiten den azalduz.

AZKEN EKOIZPENAK IZAN BEHAR DITUEN MINIMOAK:

- Azala (izenburua, KMko logoarekin ...)
- Hiru eraikinetan zer ikasten den azalpenak. (gutxienez 30-40 fotograma)
- Ahots grabazioa azalpen laburrekin
- Hondoko musika (hautazkoa)

HASIERAKO FASEA: planifikazioa

1. **ataza:** IkasLab webgunean (Ikaslab3-4) dagoen [Stop Motion Txokoaren azalpenak](#) aztertu
2. **ataza:** Adostu bideoaren egitura eta zirriborroa egin paperean (ahotsa eta irudiak antolatu)
3. **ataza:** Lana banatu taldekideen artean
 - irudiak eta testua sortzeko/antolatu ardura:
 - ahots grabazioa ardura (gidoia/grabazioa):
 - argazkiak ateratzeko teknikari ardura:
 - laguntzailea (agertuko diren elementuak kokatu):

GARAPEN FASEA: ekoiztu

4. **ataza:** materialak eta baliabideak prestatu
 - Irudiak egin/antolatu (marraztuz edo inprimatuz, edo daudenak erabili)
 - Ahots grabaziorako gidoia egin
 - Hondoko musika aukeratu ([youtube.com/audiolibrary](https://www.youtube.com/audiolibrary)) (hautazkoa)
5. **ataza:** argazkiak atera, ahotsa grabatu eta bideoa sortu (Chome nabigatzailean, Cloud StopMotion aplikazioa: [Tutoriala ikusi](#))
6. **ataza:** hondoko musika sartu behar bada ClipChamp aplikazioarekin editatu ([tutoriala](#))

AMAIERAKO FASEA: aurkeztu

7. **ataza:** Bideoa ikt@koldomitxelena.net-era bidali
8. **ataza:** *ordenagailua garbitu* (deskargak, mahai-gaina ...)
9. **ataza:** Hausnartu (idatziz)
 - Arazo teknikoak izan dituzue? Nola konpondu dituzue?
 - Sortu duzuen produktuan zer hobetu daiteke?
 - Zuen ikasgaietan nola aplikatu daiteke teknika hau?



FORMAZIOA
ARIKETA PRAKTIKOAK

